2652

ERABAKIA, 1989.eko irailaren 19koa, Barne Sailburuarena, 1988.eko abenduaren 23ko Aginduz (1989.eko urtarrilaren 2ko E.H.A.A.-ko 1. alea) deialdia egin, Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikorako izan eta lanitunepeko langileen lanpostu hutsak betetzeari buruzkoa.

Honako pertsona hau lanpostodun deklaratzea, Miren Mirari Romo Garmendia Andreak lanpostuari uko egin diolako:

4001 znebakidun lanpostua, Administrari Laguntzailea

| Eskab. Zenb. | N.A.N. | Izen-Abizenak | Puntuak |
|---|---|---|---|
| 19.858 | 14.595.141 | Villanueva Gómez Ana María | 42.61 |

Gasteiz, 1989.eko irailak 19.

Barne Sailburua,
JUAN LASA JAUREGI.

2652

RESOLUCION de 19 de Septiembre de 1989, del Consejero de Interior,por la que se efectúa provisión de vacantes de personal laboral para la Unidad Técnica Auxiliar de Policía convocada por Orden de 23 de Diciembre de 1988 (B.O.P.V. N 1 de 2 de Enero de 1989).

Se procede a declarar con plaza por renuncia de Dña. Miren Mirari ROMO GARAMENDI a la siguiente persona:

Referencia Plaza 4001 Auxiliar Administrativo

| N.º Solicit. | D.N.I. | Apellidos y nombre | Puntuación |
|---|---|---|---|
| 19.858 | 14.595.141 | Villanueva Gómez, Ana María | 42,61 |

En Vitoria-Gasteiz, 19 de Septiembre de 1989.

El Consejero de Interior,
JUAN LASA JAUREGUI.

# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA OGASUN ETA FINANTZA SAILA ETA LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2653

203/1989 DEKRETUA, irailaren 12koa, Bilbon egoitza izan eta Asociación Nuevo Futuro Bizkaia izeneko Elkarteari Herri Zuduzkotasuna aitortzen diona.

Bilboko Telesforo Aranzadi kaleko 4.ean bere egoitza duen Asociación Nuevo Futuro Bizkaia izeneko Elkarteak garatzen dituen ihardunak kontutan hartuz, Jaurlaritzak, herri-zuduzkotasuna aitortzen dio aipatutako erakundeari, izan ere, adinez txikiak direnak babeste eta zaintze-arloan Euskadiko interes orokorra sustatzen duela jotzen bait da, burutzen dituen sorospen-zerbitzuak direla medio.

Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legean; Transferentzietarako Bitariko Batzordeak, Elkarteei dagozkienetan eta 1985.eko azaroaren 28an hartutako Akordioa argitara dadila onartzen deneko urtarrilaren 28ko 75/86 Dekretuan; Elkarteen Errejistro Nagusia onartzen deneko martxoaren 25eko 77/86 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokio Herri-Zuduzkotasun hau onartzea.

Horiek horrela, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren; Ogasun eta Finantza Sailburuaren eta Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren bateratuta proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1989.eko irailaren 12an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*— Bilbon egoitza izan eta Elkarteen Errejistro Nagusian 613/87 zenbakiz inskribatuta

## DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO, HACIENDA Y FINANZAS Y TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2653

DECRETO 203/1989, de 12 de Septiembre, por el que se reconoce de Utilidad Pública a la Asociación Nuevo Futuro Bizkaia, de Bilbao.

En atención a las actividades desarrolladas por la Asociación Nuevo Futuro Bizkaia, con domicilio en Bilbao, C/ Telesforo Aranzadi n.º 4, el Gobierno considera que procede reconocer de utilidad pública a la citada entidad, por considerar que promueve el interés general de Euskadi en el campo de la protección y guarda de menores, a través del servicio que presta de tipo asistencial.

Conforme a lo dispuesto en la Ley 3/1988, de 12 de Febrero, sobre Asociaciones y a tenor del Decreto 75/86, de 28 de Enero, por el que se aprueba la publicación del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 28 de Noviembre de 1985 en materia de Asociaciones y el Decreto 77/86, de 25 de Marzo, por el que se crea el Registro General de Asociaciones, compete al Consejo de Gobierno el presente reconocimiento de Utilidad Pública.

En su virtud, a propuesta conjunta de los Consejeros de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, Hacienda y Finanzas, y Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 12 de septiembre de 1989,

DISPONGO:

*Artículo único.*— Se reconoce de Utilidad Pública a la Asociación Nuevo Futuro Bizkaia, de Bilbao —ins-

dagoen Asociación Nuevo Futuro Bizkaia izeneko Elkarteari Herri Zuduzkotasuna aitortzen zaio, bere egitekoak betez Euskadiko interes orokorra sustatzen duela jotzen delako. Era berean, otsailaren 12ko 3/1988 Legeko 22.2 atalean ezartzen diren eta Deklarazio honek bere baitan daramatzan eskubideak aitortzen zaizkio.

Gasteiz, 1989.eko irailak 12.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Zuzentza
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

crita con el número 613/87 en el Registro General de Asociaciones por considerar que contribuye a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus funciones. Asimismo se le reconocen los derechos inherentes a esta Declaración previstos en el artículo 22.2 de la Ley 3/1988, de 12 de Febrero.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de Septiembre de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Autonómico,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA OGASUN ETA FINANTZA SAILA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA ETA KULTURA ETA TURISMO SAILA

2654

204/1989 DEKRETUA, irailaren 12koa, Donostian egoitza izan eta Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea, U.Z.E.I., izeneko Elkarteari, Herri Zuduzkotasuna aitortzen diona.

Esterlines kaleko 8.ean, Donostian, bere egoitza izan eta Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea, U.Z.E.I., izeneko Elkarteak garatzen dituen ihardunak kontutan hartuz, Jaurlaritzak bidezkotzat jo du elkarte horri herri zuduzkotasuna aitortzea, izan ere, euskara teknikoaren ikerketa, itzulpen eta dibulgazio arloan Euskal Autonomi Elkartearen interes orokorrak sustatzen bait ditu, hizkuntza eta kultura esparruetan eskaintzen dituen hainbat zerbitzu direla medio.

Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legean ezartzen denaren arabera; Transferentzietarako Bitariko Batzordearen 1985.eko azaroaren 28ko eta Elkarteei buruzko Akordioa argitaratzea onartzen deneko urtarrilaren 28ko 75/86 Dekretuan esaten denaren arabera; eta Elkarteen Errejistro Orokorra sortzen deneko martxoaren 25eko 77/86 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokio Elkarte hau Herri Zuduzkotzat hartzea.

Horiek horrela, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren; Ogasun eta Finantza Sailburuaren; Kultura eta Turismo Sailburuaren; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren baterako proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1989.eko irailaren 12an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*— Donostian egoitza izan, Elkarteen Errejistro Orokorrean RPG/988 zenbakiz inskribatuta

## DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO, HACIENDA Y FINANZAS, EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION Y CULTURA Y TURISMO

2654

DECRETO 204/1989 de 12 de septiembre, por el que se reconoce de Utilidad Pública a la Asociación Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea, U.Z.E.I. de Donostia.

En atención a las actividades desarrolladas por la Asociación Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea, U.Z.E.I., con domicilio en Donostia, C/ Esterlines, n.º 8, el Gobierno considera que procede reconocer de utilidad pública a la citada entidad, por considerar que promueve el interés general de Euskadi en el campo de la investigación, traducción y divulgación del euskera técnico, a través de los múltiples servicios que presta de tipo lingüístico y cultural.

Conforme a lo dispuesto en la Ley 3/1988, de 12 de Febrero, sobre Asociaciones y a tenor del Decreto 75/86, de 28 de Enero, por el que se aprueba la publicación del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 28 de Noviembre de 1985 en materia de Asociaciones y el Decreto 77/86, de 25 de Marzo, por el que se crea el Registro General de Asociaciones, compete al Consejo de Gobierno el presente reconocimiento de Utilidad Pública.

En su virtud, a propuesta conjunta de los Consejeros de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, Hacienda y Finanzas, Cultura y Turismo y Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 12 de septiembre de 1989,

DISPONGO:

*Artículo único.*— Se reconoce de Utilidad Pública a la Asociación Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal